INT-RI-2021-0009
CB/ms

BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA

LOIOLAKO ZUBIBIDEAK (ZL2-7a ETA ZL2-7b) OSORIK BIRGAITZEKO ETA HAIETAN PANTAILA AKUSTIKOAK INSTALATZEKO PROIEKTUA, DONOSTIAKO GI-20 ERREPIDEKO 7,047 KP-TIK 7,485 KP-RA ARTEAN

(7-OF-35/2021-AT)

AURKIBIDEA

1. BALDINTZA OROKORRAK 5
2. AURREKARIAK 5
3. KONTRATUAREN XEDEA 6
4. LANEN DESKRIPZIOA 7
5. LANEN ZUZENDARITZA 12
6. LANEN GARAPENARI BURUZKO TXOSTENA 12
7. TALDEAK ETA KOLABORATZAILEAK 12
8. DOKUMENTUA AURKEZTEA 13
9. GAUZATZEKO EPEA 14
10. KONTRATUAREN PREZIOA 15

1. ERANSKINA LANGILEAK

2. ERANSKINA KOSTUEN JUSTIFIKAZIOA

1. BALDINTZA OROKORRAK

Agiri honen xedea da Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuari eman beharreko zerbitzuen kontratuaren baldintza teknikoak zehaztea eta, halaber, proiektu hau idazteko lanak deskribatzea eta horrekin lotutako baldintza eta irizpide teknikoak finkatzea: LOIOLAKO ZUBIBIDEAK (ZL2-7a ETA ZL2-7b) OSORIK BIRGAITZEKO ETA HAIETAN PANTAILA AKUSTIKOAK INSTALATZEKO PROIEKTUA, DONOSTIAKO GI-20 ERREPIDEKO 7,047 KP-TIK 7,485 KP-RA ARTEAN. Orobat, aholkularitza enpresak zer dokumentutan parte hartu behar duen ere zehaztuko da, GFAk lana onartu ahal izateko.

Agiri honetan jasotakoa ez ezik, proiektuan adierazten denak indarreko lege xedapenetan eta proiektuaren edukiarekin zerikusia duten araudi eta argibide teknikoetan finkatutakoa betetzen duela ulertuko da.

2. AURREKARIAK

Loiolako zubibidea bi egiturak osatzen dute (ZL2-7a eta ZL2-7b), eta GI-20 errepidearen igarobidea bideratzen dute Loiolako zeharbidearen eta Urumea ibaiaren gainetik. Lehenbizikoa Gasteizera doan noranzkoko galtzadari dagokio, eta bigarrena, Irunera doan noranzkoko galtzadari.

Gasteizko noranzkoko galtzadari eusten dion egitura (ZL2-7a) 893 m luze da guztira, 26 baotan banatuta. Haien argiak 15 m-tik 60 m-ra bitartekoak dira; pilareen altuera, berriz, 2,70 m-tik 9,0 m-ra artekoa. Loiolako zeharbideaz eta Urumea ibaiaz gain, egiturak Euskal Trenbide Sarearen burdinbidea ere gainditzen du.


Irungo noranzkoko galtzadari eusten dion egitura (ZL2-7b) 438 m luze da, 12 baotan banatuta. Haien argiak, gehienez, 34,65 m-koak dira; pilareen altuera, berriz, 6 m-tik 12,50 m-ra artekoa.

Bi egituren taulak 11,70 m zabal dira, eta sei habe aurrefabrikatuz eginda daude. Lehen eta hirugarren baoetan, aldiz, beste bi errei daude, taulen zabalera osoa estaltzen duten lauza atezatuekin. Habeen eta lauza atezatuaren euskarria pilareen gainean zur-erdika motakoa da.

Zubibidea 70eko hamarkadaren hasieran eraiki eta 1972ko bukaera aldera inauguratu zuten. Kalteak armaduraren korrosioaren ondorio dira, drainatze sistema ez delako eraginkorra eta gabeziak daudelako taularen inpermeabilizazioan. Horren eraginez, ura egituran zehar husten da zuzenean, eta korrosioaren bilakaera azeleratu da horren ondorioz, hartara.

Ikuspegi funtzionaletik eta bide segurtasunaren ikuspegitik, bi egituren euste sistema berritu egin behar da, eta sistemak egungo araudiaren eskakizunak bete behar ditu. Era berean, zorua birgaitu egin behar da.

Bestalde, zubibideetan pantaila akustikoak instalatzea errepideetako zaratari aurre egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekintza planean aurreikusia dago, neurri zuzentzaileen artean.



3. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da GFAko Bide Azpiegituren Birgaitze Zerbitzuari eta Bulego Teknikoari laguntza teknikoko zerbitzuak ematea, eraikuntza proiektu bat idazteko.

Proiektu horretan, egituran dauden kalteak aztertuko dira, eta larritasun maila berariaz zehaztuko da. Horretarako, kasuan kasu beharrezkoak diren saiakuntzak egingo dira, egituraren egoerari buruzko irizpen argia adierazteko eta konponketa irtenbide bat zehazteko, bizitza baliagarria luzatze aldera. Halaber, egituraren drainatze sistema nola hobetu ere aztertuko da. Besteak beste, taula inpermeabilizatzeko irtenbide bat jasoko da, junturak aztertuko dira eta isurketa ur guztia nola hustu ere aztertuko da.

Era berean, euste sistema ordezteko aukera aztertuko da, pantaila akustikoen instalazioarekin bateragarria izateko. Pantaila akustikoak nolakoak izango diren ere zehaztu beharko da. Egitura oso-osorik egiaztatuko da eta, hala badagokio, lauza indartu behar al den erabakiko da.

Kontratu honen xedea den eraikuntza proiektuan, egin beharreko obrak eta horiek egiteko era zehatz-mehatz adieraziko dira. Materialen ezaugarriak eta obra unitateen zehaztapenak jasoko dira, baita ekipoen konposizioa eta obran jartzeko errendimenduak ere. Horrez gain, proiektuan jasoko diren jarduketetan zer baliabide eta zer lan osagarri beharko diren ere zehaztuko da. Hartara, gauzatze fasean kostuen eta epeen harira sor daitezkeen arazoak baztertu egingo dira.

Hitz batez, hala ikuspegi teknikotik nola ekonomikotik, proiektuan obra guztiak behar bezala gauzatuko direla ziurtatuko da, eta eraikuntza proiektuei eta errepide zein zubiak birgaitzeko proiektuei aplikagarri zaizkien indarreko arauzko xedapen guztiak beteko direla, baita dagozkion argibideak eta gomendioak ere.

3.1 AHOLKULARITZA ENPRESAREN ESKURA IPINIKO DIREN DOKUMENTUAK

Dokumentu hauek esleipendun suertatzen den aholkularitza enpresaren eskura ipiniko dira:

- Loiolako zubibidearen definizio planoak, proiektu honetatik aterata: N-I errepidearen 459,60 kp-tik 469,87 kp-ra arteko desbideratzea berritzeko proiektua (1970eko abuztua).
- Donostiako A-8 errepideko 20,056 kp-an dagoen La Salleko zubibidea indarreko araudiarekin bat etortzeko eta zarataren aurkako pantaila ipintzeko azterlana (2006ko otsaila).
- GESTIÓN ESTRUCTURAS DFG ABEEak egindako txostena, ikuskapen nagusikoa eta ikuskapen berezikoa. ABEE hori INTEMAC SA eta ANTA INGENIERÍA CIVIL SLP enpresek osatu zuten.
- GI-20ko galtzadaren jasotze topografikoa. Gipuzkoako Foru Aldundiak 2018an egindako Mobil Mapping jasotzetik hartu da.
- Errepideetako zaratari aurre egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekintza plana.

4. LANEN DESKRIPZIOA

Aholkularitza enpresak berak idatzitako dokumentuak mekanografiatuko ditu, delineazio lanak egingo ditu, antolatuko ditu, koadernatuko ditu eta gainerako zeregin guztiak egingo ditu. Berdin-berdin jokatuko du administrazioak prestaturiko dokumentuekin, enpresak haietan parte hartu edo ez. Gorago aipatu diren amaierako lanak ez ezik, aholkularitza enpresak agiri honetan adierazten diren dokumentu guztiak idatziko ditu, kontratuko zuzendaritzaren esanetara. Bestalde, honako lan hauek ere egingo ditu, bere kontura eta bere langileak eta baliabideak erabiliz:

4.1 ALDEZ AURREKO LANAK

4.1.1 Aldez aurreko informazioa aztertzea:

Eskura dauden dokumentuak aztertuko dira eta, beharrezkoa izanez gero, irtenbideei buruzko aurretiko azterlana egingo da.

4.1.2 Lekuko datuak biltzea:

- Egitura ikuskatzea, bao guztietara heltzeko beharrezkoak diren bitarteko osagarriak erabiliz (pasareladun kamioia eta plataforma).
- Topografia:

  Topografiari buruzko eranskinean, erreferentziako informazioa eta proiektuari dagokiona jasoko da.

  Topografia lan osagarrien harira, aholkularitza enpresak lekuko eta kabineteko lan hauek egin beharko ditu, ematen zaizkion oinarrizko dokumentuetan jasota ez badaude:

  Zubibidearen behealdearen jasotze topografikoa 1:500 eskalan, bao bakoitzean eta eraikuntza proiektua erabat definitzeko beharrezkoak diren eremuetan, ETRS89 UTM30 koordenatuetan. REDNAP2008. Xede horrekin, zuinketa oinarrien sarea finkatuko da sistema horretan.

Kalterik izan dezaketen zerbitzuak planoetan adieraziko dira, aldatu behar ote diren aztertze aldera.

Kontratuko zuzendaritzaren ustetan beharrezkoa bada, jasotze partzialak 1:200 eta 1:100 eskalen artean, euste sistema, drainatze elementuak eta abar aztertu eta definitzeko.

- Hormigoiaren karakterizazio saiakuntzak, lauzetan eta habeetan.
- Karbonatazioaren eta kloruroen saiakuntzak, estaldurak zehaztea. Armaduren eta ainguratzeen egoerari buruzko azterlana.
- Aglomeratuaren lodierak zehaztea.

Aholkularitza enpresak erreiak behar duen moduan ebakiko ditu, ikuskapen lanak egiteko, datuak biltzeko eta saiakuntzak bideratzeko.

4.2 IRTENBIDEAK AZTERTZEA

4.2.1 Egiturazko diagnostikoa

Enpresak ematen zaizkion dokumentuak aztertuko ditu eta egoeraren adierazleak aztertuko dira, elementuen eta bilakaeraren arabera. Hortik abiatuta, egitura birgaitu eta konpontzeko jarduketak zehazte aldera, dagozkion saiakuntzak antolatuko dira. Zubiaren modelizazioa egingo da eta egitura behar bezainbeste egiaztatuko da. Halaber, indarreko araudia betetzen dela justifikatuko da. Kargen hipotesiak eta konbinazioak zehaztuko dira, baita materialen ezaugarri mekanikoak eta erabilitako segurtasun koefizienteak ere.

4.2.2 Egitura birgaitzea eta konpontzea

Konponketa eta sendotze lanak egiteko eraikuntza prozesua deskribatuko da, dagokion tokietara heltzeko baldintzatzaileak eta eragin posibleak aintzakotzat hartuta. Alde hauek zehatz-mehatz definituko dira:

4.2.2.1 Euskarri aldaketak pilare eta estribuen habeetan:

Euskarri guztien egoera egiaztatuko da eta zer euskarri ordeztu behar diren erabakiko da, baita haiek aldatzeko zer metodologia erabiliko den ere. Hala badagokio, eskailera buruak egingo dira. Bestalde, unitatea eta bitarteko osagarriak behar bezala eta zeharo definitzeko gainerako kalkuluak ere egingo dira.

4.2.2.2 Hormigoizko elementuak konpontzea:

Saiakuntzen emaitzak oinarritzat hartuta, egoera aztertuko da eta konpontzeko irtenbideak proposatuko dira. Irtenbideetan, hainbat gai zehaztuko dira: materialen ezaugarriak, lodierak, prozedurak, etab.

4.2.2.3 Dilatazio junturak kentzea eta ertzak konpontzea:

Dilatazio junturak kentzeko aukera ebaluatuko da. Lehenik, egiturak oraindik ere jasan ditzakeen desplazamenduak aztertuko dira eta pitzadura posiblerik ba al dagoen begiratuko da. Emaitzei jarraikiz, amaierako irtenbidea eta hura gauzatzeko prozesua zehaztuko dira xehe-xehe, eta bitarteko osagarri guztien berri emango da.

4.2.2.4 Hezetasunen ondoriozko arazoak konpontzea eta drainatzeko eta ura husteko sistema berritzea:

Karbonatazio saiakuntzen emaitzak zein diren, irtenbidea zehaztuko da. Hartara, hainbat alde zehaztuko dira: materialen ezaugarriak, lodierak, prozedurak, etab.

4.2.2.5 Taula inpermeabilizatzea:

Inpermeabilizazio irtenbiderik egokiena bilatuko da, zer drainatze sistema proposatu den eta juntetarako irtenbidea kontuan hartuta, baita obran jartzeko baldintzatzaileak ere.

4.2.2.6 Taularen zorua birgaitzea:

Lagin zuloak egin ostean eta taularen zoruaren lodiera ikusita, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepide Sareko bidezoruak neurtzeko arauan ematen diren aukerak aztertuko dira, baita, arau horretatik at, material aplikagarriekin izandako esperientzia, ikerlanak eta erabilgarritasuna ere.

Lodierak kalkulatzeko, proiektuan kontuan hartu diren karga hipotesia eta karga hila (zoladura + euste sistema) aintzakotzat hartuko dira.

4.2.2.7 Ibilgailuei eusteko sistema ordeztea:

Aurrena, ibilgailuei eusteko dagoen sistemak nolako gaitasuna duen aztertuko da. Zenbateko euste defizita zuen, ordezteko aukera proposatuko da.

Euste sistema hautatzen denean, 35/2014 Agindu Zirkularrean definituta dauden irizpideei jarraituko zaie, ibilgailuei eusteko sistemak aplikatzeko irizpideak direla eta. Horretarako, egituraren erresistentzia gaitasuna zehaztuko da, euste sistemen funtzionamendua aztertuko da eta, hala, egungo taularen erresistentzia gaitasuna baino indarren transmisio gaitasun txikiagoa dutenak hautatuko dira. Bestalde, taula sendotu behar izanez gero, zer neurritan sendotu behar den kalkulatuko da.

Proposatzen den euste sistemak CE marka arautzen duen UNE EN 1317 arauan finkatutakoa beteko du.

4.2.2.8 Pantaila akustikoak ipintzea:

Pantailak instalatzeko proiektua egingo da eta pantaila akustikoak ipintzea bideragarria al den aztertuko da, taularen egiturazko azterketaren emaitzak zein diren.

Pantaila motak eta taulan nola ainguratu aztertuko dira, eta taula indartu behar al den ere egiaztatuko da.

4.2.2.9 Inpostak kentzea:

Inposta aurrefabrikatuak kendu behar ote diren aztertuko da, eta horien zeregina betetzeko irtenbide bat proposatuko.

4.2.3 Trafikoari eragina obrak gauzatu bitartean:

Obrak gauzatzen diren bitartean trafikoari zer irtenbide eman aztertuko da. Hartara, obra faseak, egin beharreko desbideratzeak eta seinaleak zehaztuko dira.

4.2.4 Eraikuntza eta eraispen hondakinen kudeaketa:

Eskaintzen den proiektuaren barnean, eraikuntza eta eraispen hondakinen kudeaketari buruzko azterlana jasoko da, 105/2008 Errege Dekretua garatzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan finkatutakoarekin bat. Azterlanean, obran bertan sorturiko hondakinen kudeaketaren nondik norakoak zehaztuko dira. Horren ondoriozko aurrekontua proiektuaren aurrekontuaren barruan egongo da, beste kapitulu batean.

4.2.5 Desjabetzeak, aldi baterako okupazioak eta zortasunak:

Eraikuntza proiektuko lanak zenbaterainokoak izango diren aztertuko da; zehazki, desjabetzerik, aldi baterako okupaziorik edo zortasunik behar al den erreparatuko zaio. Hala badagokio, dagozkion lursailen kokapena eta ezaugarriak jasoko dira, zehaztapen hauei jarraikiz:

Proiektuan, partzelen planoak ere bilduko dira. Mapa topografikoan, 1:500 eskalan, obrek hartutako eremuan dauden partzelak banaka ikusiko dira, mugen, hesien eta landutako lurren arabera bereizita. Partzelen planoak egungo egoeraren oinarri kartografikoari jarraituz egingo dira. Planoetan, desjabetzearen, aldi baterako okupazioaren edo zortasunen mugak marraztuko dira, eta ondoriozko partzelei edo azpipartzelei zenbaki korrelatiboak esleituko zaizkie. Partzelen titulartasunak zehaztu behar direnean, ez da katastroko planoa soilik erabiliko. Aitzitik, planoa jabe eta maizterren datuekin eguneratu beharko da, datuak lekuan bertan hartuta.

Desjabetzearen ertza ingerada poligonalak definituko du, eta proiektuan erabilitako sistemako koordenatuak ezarriko zaizkie haren erpinei. Proiektuko dagokion eranskinean jasoko da poligonal horren koordenatuen zerrenda.

Kontuan hartuko da errepide horri dagokion jabari publikoko lur zerrenda, baita lursailen egungo erabilerak ere. Obrak eta erabilerak bateragarriak izateko moduan bideratuko dira.

4.2.6 Eragina jasango duten zerbitzuak:

Aintzakotzat hartuko dira egituran bertan dauden zerbitzuei buruz GFAk emandako informazioa eta proiektuaren aurretiko lanetan egin beharreko begi ikuskapenean bildutako datuak. Era horretan, zerbitzuei eragingo ote zaien aztertuko da eta, hala badagokio, dena delako zerbitzua nola birjarri proiektatuko da, proiektuko gainerako jarduketen xehetasun maila berberaz.

Hortaz, hala atal honetan proiektatu diren lanak nola horiek gauzatzeko bitarteko osagarriak errendimenduekin eta eraikuntza prozesu justifikatuaren xehetasunekin definituko dira. Hala, lanen xehetasun guztiak jasota egongo dira eta neurriak eta aurrekontuak zehaztasunez kuantifikatuko dira.

Bestalde, zerbitzuek eraginik jasaten badute, horiek birjartzeko irtenbideak proiektuan definituko dira, edo dagozkion agentziekin zuzeneko kudeaketa eginez planteatuko dira.

Zerbitzuak kokatu eta identifikatutakoan, tokiko jasotze topografiko bat egingo da etete puntuan, birjartzeak hala behar duenean, eta xehetasunez adieraziko dira eragiten zaion trazatuaren elementuen koordenatuak eta kotak (euste zutoinak, aireko hariteria, etab.). Informazio hori guztia islatuko da oinplanoaren planoetan eta altxaeraren planoetan, eskala egokian; plano horiek dagokion zerbitzuaren enpresa jabe edo

emakidadunari bidaliko zaizkio, eta dauden baldintzatzaileei eta birjartze obrek bete beharreko baldintza teknikoei buruzko informazioa jasoko da.

Zerbitzu bakoitza birjartzeko proiektua aholkularitza enpresaren ardurapean egongo da. Proiektua prestatzen duenean, teknikari espezialistek edo enpresa homologatuek parte hartuko dute, halakorik eskatzen duten zerbitzuaren organismo titularrek edo, baimena emanez gero, aholkulariak berak homologatutakoek. Kontsulta edo proiektu horietatik eratorriko kostuak enpresa aholkulariak ordainduko ditu. Edonola ere, zerbitzuaren entitate edo enpresa titularraren onespena beharko du irtenbideak, baita proiektuko zuzendaritza bat etortzea ere.

4.2.7 Segurtasuneko eta osasuneko azterlana:

Azterlana urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz egingo da. Halaber, errepideen proiektuetan segurtasuneko eta osasuneko azterlana egiteko Sustapen Ministerioaren gomendioak ere bete beharko dira.

4.2.8 Obra plana:

Obrak irudikatzen dituen barra diagrama atxikiko zaio proiektuari. Hartan, epe osoak eta partzialak jasoko dira, baita zenbatekoak ere, gauzatze faseen edo elementu multzoen arabera. Diagrama prestatzen denean, lanak nola antolatuko diren eta zer errendimendu aurreikusten den kontuan hartuko da, plantéatzen diren desbideratzeen arabera.

Obra planean, eraikuntza prozesua xehe-xehe deskribatuko da errendimenduak oinarri hartuta, eta bitarteko osagarriak ere zehaztuko dira.

4.2.9 Aurrekontua:

Aurrekontua gauzatze faseen edo elementu multzoen arabera banakatuko da; era horretan, obrak faseei jarraituz gauzatu ahalko dira, finkatzen diren lehentasun irizpideak betez.

4.3 PROIEKTUKO DOKUMENTUAK PRESTATZEA:

Proiektu bat idazteko lana da kontratuko dena, eta dokumentu hauek daude barruan:

- Memoria eta eranskinak
- Baldintza teknikoen agiria
- Planoak
- Aurrekontua

  Neurketak

  Prezioen 1. taula

  Prezioen 2. taula

Aurrekontua

- Segurtasuneko eta osasuneko azterlana
- Hondakinen kudeaketari buruzko azterlana

Proiektua egituratuko da lizitazioa bi fasetan egiteko moduan: zubibide bakoitza bereizita.

Dokumentu horiek eta agiri honetan zehazten diren gainerakoak beharrezkoak izango dira egin beharreko obrak eta horiek gauzatzeko modua xeheki zehazteko. Lursailak erreserbatu, informazioa jendaurrean ipini eta, hala badagokio, desjabetzeko izapideak kudeatzeko aukera emango dute. Era berean, erabili beharreko materialak eta gauzatu beharreko obra unitateak normalizatuta egongo direla ziurtatuko dute, emaitza optimoak lortzeko ikuspegi teknikoa eta ekonomikoa uztartuz. Halaber, informazio xehea ere eman beharko da, lizitazioaren ostean obrak zehaztasun osoz aztertzeko eta gauzatu ahal izateko.

5. LANEN ZUZENDARITZA

Lanen kontratuko zuzendaritza GFAko Bide Azpiegituretako Departamentu Bide Azpiegituren Birgaitze Zerbitzuko eta Bulego Teknikoko langileek osatuko dute.

Kontratuko zuzendaritzak koordinazio lanak egingo ditu eta aholkulariaren jarduketa irizpideak eta ildo orokorrak finkatuko ditu. Hala, aholkulariak lanak egingo ditu agiri honetan eta kontratua osatzen duten gainerako dokumentuetan finkatutakoarekin bat etorriz, eta erantzukizun teknikoa eta legala bere gain hartuko du.

6. LANEN GARAPENARI BURUZKO TXOSTENA

Lanean hasten den lehen astean, aholkularitza enpresak lanen programa aurkeztuko dio kontratuko zuzendaritzari. Hartan, azterlanaren fase adierazgarrienak definituko dira.

Idazteko epea amaitu baino hamabost egun lehenago, gutxienez, txostenaren dokumentua kontratuko zuzendaritzari helaraziko zaio. Hala, horrek aztertu ostean, dagozkion aldaketak egingo dira eta behin betiko dokumentua editatu eta aurkeztuko da, onartu den idazketa epearen barruan.

7. TALDEAK ETA KOLABORATZAILEAK

Aholkularitza enpresak kontratu honen esku jarriko dituen baliabideen zerrenda aurkeztuko du. Lanaren kalitatea eta eraginkortasuna ez murrizteko behar adinako jarraitutasuna izango du, eta kontraturako soil-soilik erabiliko diren baliabideak zehaztuko dira.

Aholkulariak lanak egiteko talde bat izendatuko du. Horren burua bide, ubide eta portuetako ingeniari bat izango da, 10 urtetik gorako eskarmentua izango duena. Aholkulariaren ordezkari gisa jardungo du eta lanak koordinatuko ditu. Taldeko langileak hauek izango dira, gutxienez: bide, ubide eta portuetako ingeniari bat eta obra publikoetako ingeniari tekniko bat edo industria ingeniari tekniko bat. Bost urtetik gorako eskarmentua eduki behar dute.

Azterlana osatuko duten lanetako bakoitzaren ardura izango duten langileen zerrenda eskaintzan zehaztu beharko da. Bestalde, kolaboratzaileek parte hartzea proposatzen bada, lankidetza konpromisoaren adierazpena aurkeztu beharko da. Esleipendun suertatzen den aholkularitza enpresak ezingo ditu

eskaintzan proposatutako kolaboratzaileak baztertu edo ordeztu, lanen zuzendaritza teknikoak aldez aurretik onartu gabe bederen.

Bestalde, lan fase bakoitzean baliatuko diren ekipo eta baliabide teknikoak deskribatuko dira, baita ekipo eta programa informatikoak zehaztu ere.

8. DOKUMENTUA AURKEZTEA

Aintzakotzat hartu behar da ezen, martxoaren 8ko 21/2004 Foru Dekretuko 16. artikuluaren arabera (2. ataletik 4.era bitarte), proiektua idazteko esleipendunak paperean zein euskarri informatiko batean aurkeztu beharko dituela memoria, planoak eta desjabetzeen eranskina, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan.

Dokumentuak ematea eta kontratuko zuzendaritza haiekin konforme egotea ezinbestekoa izango da lanen harrera formalizatzeko eta lanak ordaintzeko.

8.1 DOKUMENTUAK PAPEREAN

Proiektua eskumena duen norbaitek sinatu beharko du eta edizioa bi (2) ale oso izango dira.

8.2 EUSKARRI INFORMATIKOAN

Euskarri informatikoan bi bertsio egingo dira: bat, lan egiteko; bestea, artxibatu eta kontsultatzeko. Bertsio horietako bakoitzaren bi (2) ale emango dira.

Lanerako bertsioa osatzen duten artxiboak dagozkion aplikazioen **formatu irekian prestatuko dira,** aldaketak egin ahal izateko beharrezkoa izanez gero.

Artxibatu eta kontsultatzeko bertsioa osatzen duten artxiboak, berriz, Adobe Acrobaten **PDF formatuan** (Portable Document Format) egongo dira.

8.3 DOKUMENTUAREN EGITURA

Lanerako eta kontsultarako bertsioen egitura behean zehaztu da, dokumentuak kudeatzeko programan errazago kargatzeko.

- MEMORIA ETA ERANSKINAK azpidirektorioan, proiektuaren memoriari dagokion artxiboa kokatuko bat, baita proiektuan dauden eranskinak adina azpidirektorio ere. Horrelakoei dagokion eranskinaren jatorrizko izen osoa jarriko zaie.
- PLANOAK izeneko azpidirektorioan, bestalde, proiektuko 2. dokumentuko plano guztiak bilduko dira. Artxibo bakoitzaren izena planoaren izen osoa izango da; aurretik, proiektuan duen zenbakia idatziko da. Beharrezkoa bada, planoak azpidirektoriotan antolatuko dira, plano multzoen arabera. Plano osagarriak edo kanpoko erreferentzietarako planoak beste azpidirektorio batean gordeko dira, PLANOAK azpidirektorioaren barnean. Dokumentu batean, planoen aurkibidea jasoko da eta, beste batean, planoetako kanpoko erreferentzia guztiak zehaztuko dira.
- AGIRIA izendatuko den azpidirektorioan, proiektuaren baldintzen agiria egongo da, artxibo bakar batean.
- AURREKONTUA izeneko azpidirektorioan, aldiz, proiektuaren aurrekontuaren artxiboak bilduko dira. Artxibo horiek programa informatiko espezifiko batean prestatuko dira (PRESTO edo SISPRE). Trukerako fitxategia ere bertan jarriko da (.bc3). Neurketa osagarrien artxiboak ere bertan egongo dira.

Azpidirektorio horretan, atal hauek egongo dira: Memoria, prezioen 1. taula, prezioen 2. taula eta aurrekontua.

- SEGURTASUNEKO ETA OSASUNEKO AZTERLANA azpidirektorioan, segurtasuneko eta osasuneko azterlanaren artxiboak ipiniko dira, azpidirektorio hauekin batera: Memoria, Planoak, Baldintzen agiria eta Aurrekontua. Horiek ere proiektu nagusiaren egitura eta ezaugarri berdinak izango dituzte.
- ASKOTARIKOAK azpidirektorioan, proiektua egiteko informazio interesgarri guztia jasoko da, dagokion programaren jatorrizko formatuan (DOC, DWG, XLS, etab.), ahal dela. Bestela, PDF formatuan egongo dira. Beharrezkotzat jotzen bada, proiektuko zuzendariak atal horretan zer dokumentu jaso zehaztu ahalko du. Bereziki interesgarriak izango dira hauek guztiak: aztertu eta alde batera utzi diren irtenbideak (eta, beraz, proiektuan txertatu ez direnak); erabili diren hirigintza plangintzako azterlanak; proiektua idazte aldera, beste administrazio batzuekin edo entitate publiko edo pribatuekin izandako harremanei buruzko dokumentuak, etab.

9. GAUZATZEKO EPEA

Lanak gauzatzeko epea sei (6) hilabete izango da.

10. KONTRATUAREN PREZIOA

Agiri honen xede den lana idazteko aurrekontu osoa 130.195,76 € izango da, BEZa barne.

Lanak ordainduko dira dokumentu hauek eman ahala:

Aleak	Izena	Ehunekoa	Guztira
1	Zubibidearen egoerari buruzko aurretiko txostena, saiakuntzak eta irtenbideen azterketa	% 30	32.279,94 €
1	Proiektuaren 0. dokumentua ematea eta, horren barnean, memoria, planoak, baldintza teknikoen agiria eta aurrekontua, berrikusteko	% 50	53.799,90 €
1	Proiektuaren behin betiko dokumentua ematea, lizitaziorako. Agirian zehazturiko ale guztiak emango dira, formatu digitalean eta paperean	% 20	21.519,96 €
	GUZTIRA		107.599,80 €
	BEZ (% 21)		22.595,96 €
	ZENBATEKO OSOA, BEZa BARNE		**130.195,76 €**

Oharra: aholkulariak ordainduko ditu datuak biltzeko operatiboari dagozkion lanak, baita erreiak moztea, seinaleak ipintzea eta bestelakoak dakartzaten saiakuntzen lanak ere. Horrelako guztiak kontratu honen barruan egongo dira. Enpresa esleipenduna ustiapen beharren arabera arituko da une oro. Lan guztiek GFAren eta Eusko Jaurlaritzako Trafikoko lurralde bulegoaren baimena beharko dute, hala datei nola ordutegiei begira. Ildo horretan, baliteke gauez edo lanegun ez diren egunetan aritu behar izatea, eta horregatik ezingo da kalterik erreklamatu.

Donostia, 2021eko ekainaren 3a

BIDE KANAL ETA PORTUEN INGENIARIA

Fdo.: Cecilia Barranco Ledo

BIDE AZPIEGITUREN BIRGAITZE ZERBITZUKO ETA BULEGO TEKNIKOKO BURUA

Fdo.: Susana Luzuriaga Mocoroa

1. ERANSKINA: LANGILEAK

Laguntza teknikoan parte hartuko duten gutxieneko langileak

Prezioa Kop.	Lanbidea eta eskarmentua	Gutxieneko eskarmentua (urte)	Dedikazioa (kopuru osoaren %-a)	Dedikazioa hiletan
1	Teknikaria, portu, ubide eta bideetako ingeniaritzako edo ingeniaritza zibileko ziurtagiri akademikoa duena, egituren ingeniaritzako masterrarekin edo horien garai bateko baliokideekin Europako goi mailako hezkuntza esparruan (EGHE). Eskarmentua izan behar du proiektuan idazten, laguntza teknikoa ematen eta errepide edo trenbideetako azpiegitura linealen egiturak konpondu edo birgaitzeko obren zuzendaritzetan.	10	% 20,00	0,20*6
2	Teknikaria, portu, ubide eta bideetako ingeniaritzako edo ingeniaritza zibileko ziurtagiri akademikoa duena, egituren ingeniaritzako masterrarekin edo horien garai bateko baliokideekin Europako goi mailako hezkuntza esparruan (EGHE). Eskarmentua izan behar du proiektuan idazten edo laguntza teknikoa ematen edo errepide edo trenbideetako azpiegitura linealen egiturak konpondu edo birgaitzeko obren zuzendaritzetan.	5	% 70	0,70*6
3	Teknikaria, obra publikoetako ingeniaritza teknikoko ziurtagiri akademikoa edo ingeniaritza zibileko gradua duena, edo horien garai bateko baliokideak Europako goi mailako hezkuntza esparruan (EGHE). Eskarmentua izan behar du proiektuan idazten edo laguntza teknikoa ematen edo errepide edo trenbideetako azpiegitura linealen egiturak obren zuzendaritzetan.	5	% 70	0,70*6

(1) Lanbide horiek edo kategoria handiagokoak, baldin eta eskarmentu espezifikoa behar bezala frogatzen bada.

(2) Dedikazioa gutxi gorabeherakoa da, kontratuaren beharren arabera alda baitaiteke.

2. ERANSKINA: KOSTUEN JUSTIFIKAZIOA

Laguntza teknikoko kontratuaren kostuak hauek izango dira, gutxi gorabehera:

Prezioa Kop.		Prezio unitarioa €/hil	Dedikazioa (kopuru osoaren %)	Dedikazio osoa (hil)	GUZTIRA
1	Portu, ubide eta bideetako ingeniaria, egituren ingeniaritzako masterrarekin eta 10 urtetik gorako eskarmentuarekin	9.500,00 €	% 20,00	1,2	11.400,00 €
2	Portu, ubide eta bideetako ingeniaria edo ingeniari zibila, egituren ingeniaritzako masterrarekin eta bost urtetik gorako eskarmentuarekin	7.500,00 €	% 70,00	4,2	31.500,00 €
3	Obra publikoetako ingeniari teknikoa edo ingeniari zibila, bost urteko eskarmentua duena	6.000,00 €	% 70,00	4,2	25.200,00 €
4	Delineazio teknikaria	3.200,00 €	% 35,00	2,1	6.720,00 €
5	Administrari laguntzailea	3.000,00 €	% 20,00	1,2	3.600,00 €
6	Saiakuntzak eta ikuskapeneko bitarteko osagarriak, baita erreia mozteko ere	12.000,00 €	% 100,00	1	12.000,00 €

EPEA	Sei hilabete	**GAUZATZE MATERIALA, GUZTIRA**	90.420,00 €
		GO + MI (% 13 + % 6)	17.179,80 €
		KONTRATA BIDEZKO GAUZATZEA, GUZTIRA	**107.599,80 €**
		BEZ (%% 21)	22.595,96 €
		LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA, GUZTIRA	**130.195,76 €**